Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko apirilaren 9a, asteartea — 68 — Martes, a 9 de abril de 2019



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Debako Hiri Antolaketako Arauetako 5. aldaketaren Ingurumen Adierazpen Estrategikoa (Ingurumen Memoria), 12 HA Osio eremuari dagokionez.*

*1. Aurrekariak.*

2015eko urtarrilaren 9an, Debako Udalak Debako Hiri Antolaketako Arauetako 5. Aldaketaren ingurumen aldetiko tramitazioa hasi zuen. Horretarako, hasierako dokumentua igorri zion GFAren Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari. Aldaketa hori Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak eman epai baten ondorioz abiatu zen. Izan ere, hark baliogabe jo zuen Debako Hiri Antolaketako Arauek egin 12 HA «Osio» eremuaren mugaketa. Epaiak jasotzen zuenaren arabera, plangintzagileak berriro ordenatu behar zuen eremua, bertan ziren lurzoruen izaera desberdinak kontuan hartuta.

2015eko maiatzaren 27an, GFAren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak Aldaketaren ingurumen ebaluaziorako erreferentziako dokumentua eman zuen, horrela betez 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, 10. artikuluan dioena. Dokumentu horretan, egindako kontsultei eman erantzunak helarazten ziren, aplikatu beharreko ingurumen helburu estrategikoak eta jasangarritasun printzipioak definitzen ziren, eta Planaren ingurumen ebaluaziorako preskripzioak ezartzen ziren, Aldaketaren eremuan dauden interes bereziko baliabide eta espazioak eta ingurumen arazoak identifikatuz, ingurumen jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiarekin eta irismenarekin batera.

2018ko abenduaren 28an, Debako Hiri Antolaketako Arauetako 5. Aldaketaren dokumentazio teknikoaren eta behin-behineko onarpen dokumentuaren espediente administratiboaren kopia igorri zion Debako Udalak GFAren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiari, euskarri informatikoan, eta, horrekin batera, Aldaketari buruzko Ingurumen Memoria ematea eskatu zion.

*2. Hiri antolaketako arauetan egin ingurumen alderdien integrazioaren balorazioa.*

Udalak igorritako dokumentazioan espediente administratiboa, informazio eta justifikazio memoria, hirigintzako araudia, informazio eta antolamendu planoak, eta ingurumen jasangarritasunari buruzko txostena daude. Aldaketak Osio errekaren uholde-arriskuari buruzko azterketa hidrauliko bat ere badauka, 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, eskatzen dituen txosten ekonomikoekin batera.

Aldaketak bi antolamendu eremuren bitartez ezartzen du Osio inguruko egiturazko antolamendua: «Osio» HA eremuaz batetik, lurzoru urbanizagarritzat sailkatzen baita –horren antolamendu xehatua hiri antolamenduko plan berezi baten bitartez ezarriko da–, eta 2. sektore urbanizagarri «Osio» deituaz bestetik –honen antolamendu xehatua plan partzial batean jasoko

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Declaración Ambiental Estratégica (Memoria Ambiental) de la modificación n.º 5 de las NNSS de Deba referida al A.U. 12 Osio.*

*1. Antecedentes.*

Con fecha 9 de enero de 2015, el ayuntamiento de Deba inició la tramitación ambiental de la Modificación n.º 5 de las Normas Subsidiarias (NNSS) de Deba, mediante la remisión a la Dirección General de Medio Ambiente de la DFG del documento de inicio. Dicha Modificación se inició como consecuencia de una sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco que declaraba nula la delimitación realizada por las Normas Subsidiarias de planeamiento de Deba (NNSS) del ámbito AU.12 Osio. La sentencia señalaba que el planificador debía proceder a realizar una nueva ordenación del ámbito de acuerdo con la distinta naturaleza de los suelos en éste contenidos.

Con fecha de 27 mayo de 2015, la Dirección General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la DFG emitió el documento de referencia para la evaluación ambiental de la Modificación, en cumplimiento del artículo 10 del Decreto 211/2012, 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas. En dicho documento se daba traslado de las respuestas a las consultas efectuadas, se definían los objetivos ambientales estratégicos y principios de sostenibilidad aplicables; se establecían las prescripciones para la evaluación ambiental del Plan, identificando los recursos y espacios de especial interés y problema ambientales que se encuentran en el ámbito de la Modificación, así como el contenido y alcance del informe de sostenibilidad ambiental (ISA).

El 28 de diciembre de 2018, el Ayuntamiento de Deba remite a la Dirección General de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la DFG copia en soporte informático de la documentación técnica y del expediente administrativo del documento de aprobación provisional de la Modificación n.º 5 de las NNSS de planeamiento de Deba y solicita la emisión de la Memoria ambiental de la Modificación.

*2. Valoración de la integración de los aspectos ambientales en la propuesta de modificación de NNSS.*

La documentación remitida por el Ayuntamiento se compone del expediente administrativo, la memoria informativa y justificativa, la normativa urbanística, los planos de información y ordenación, así como el informe de sostenibilidad medioambiental. La Modificación cuenta además con un estudio hidráulico sobre la inundabilidad de la regata Osio y los informes económicos que exige la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo.

La Modificación establece la ordenación estructural de la zona de Osio, a través de dos ámbitos de ordenación: el área A.U. Osio que se clasifica como suelo urbanizable –y cuya ordenación pormenorizada se establecerá a través de un plan especial de ordenación urbana– y el Sector urbanizable 2 Osio –cuya ordenación pormenorizada se remite a un plan parcial–. Ambos

EK\CV GAO-I-2019-02183

da–. Eremu bion kalifikazioak «dentsitate handiko bizitegi erabilera» globala jasotzen du. Eta aurreikusten denaren arabera, eremu antolatuek 247 bat etxebizitza berri eta zenbait ekipamendu publiko hartuko dituzte. Era berean, onartutako antolamenduak hiri lurzoruko 5.000 m$^2$ inguru desklasifikatzea jasotzen du, lurzoru urbanizaezinera igaroko baitira.

Aldaketaren irizpideak eta helburuak honakoak dira:

a. Agindu judiziala betetzea, hirigintzako hiru eremu mugatuz horretarako: hiri lurzorua (12 HA Osio), lurzoru urbanizagarria (2. sektorea «Osio»), eta behar ez den beste zatia, berriz, lurzoru urbanizaezin gisa.

b. Osioko sarrera-irteerak bideratzeko antolamendua ahalbidetzea, N-634 errepidearekiko biribilgune batez.

c. Biribilgune hori eta ibaiertzeko pasealekua lotzeko gainbide bat sortzea.

d. Agirretxerekin, eskolekin eta kiroldegiarekin lotzeko igogailua.

e. Espazio libreetarako zonak, aire librekoak eta estaliak, antolatzen den eremuaren barnean.

f. Zuzkidura publikoetarako espazioak Maxpen.

g. Hirigintzako kudeaketa bideragarri egitea, ikuspegi tekniko, juridiko eta ekonomikotik eta ingurumenaren aldetik.

h. Ingurumen Jasangarritasunaren Txostenetik ondorioztatzen diren ingurumen alderdiak jasotzea.

Aldaketako dokumentu eta planteamendu multzoak kontuan hartu ditu antolamenduaren xede den kokagunearen ingurumen aldetiko alderdi eta mugak, bertan planteatzen diren hirigintzako jarduketek ingurumenean izango dituzten inplikazioekin batera. Era berean, onartutako antolamenduak kontuan hartu ditu erreferentziako dokumentuan antolamendu irizpideei dagokienez adierazitako irizpide gehienak, eta baita Aldaketaren aplikazio eremuaren barnean dauden interes bereziko espazio eta elementuak ere.

Horrela, onartutako antolamenduak jaso egiten ditu ingurumenaren eta hiri kalitatearen aldetik hobekuntza ekarriko duten jarduketak, hala nola Osio errekaren parte bat leheneratzea, hiri lurzorua desklasifikatzea edo espazio libreak erabilera publikorako egokitzea.

Bestetik, antolamendu aurreikusiaren arabera, lurzorua urbanizatu eta okupatu egingo da, Batasunaren intereseko habitat naturalen eremua murriztu egingo da, eta paisaia aldetiko inpaktu garrantzitsuak ere gerta daitezke antolatutako eremuaren ezaugarri orografikoengatik, muga handiak ditu-eta hirigintza aldetiko eraldaketara begira. Antolamendu xehatuak –hiri antolamenduko plan berezia eta plan partziala– eta urbanizazio proiektuek jaso eta garatu egin behar dituzte Ingurumen Jasangarritasunaren Txostenean (IJT) proposatzen diren neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsaziokoak, eta jasotze eta garatze horren nondik norakoaren mendean egongo da, neurri handi batean, inpaktuek azkenean izango duten garrantzia; beraz, garrantzitsua da neurri horiek garapeneko plan eta proiektuetan egoki jasoko direla bermatzea.

Horri dagokionez, aipatu behar da ezen Osio HA eta 2. Sektorea Osio hirigintzako fitxek, eremu horietako bakoitzeko hirigintzako fitxa partikularrak ezartzen dituztenean, horien hirigintza aldetiko kudeaketarako eta antolamendu xehatua formulatzeko baldintzen artean jasotzen dituztela ingurumen aldetiko zenbait alderdi, hala nola azterketa akustiko bat egin beharra –IJTn egina berresteko eta/edo osatzeko–, azterketa arkeologiko bat eta paisaia azterketa bat egin beharra, eta ur administrazioaren baimen administratiboa eskuratzearren ur eta ingurumen proiektua aurkeztu beharra. Alabaina, hirigintzako fitxek ez dute aipatzen garapeneko plan eta proiektuek nahitaez jaso beharra IJTren VI. apartatuan aipatutako neurriak –ingurumen integraziorako neurrien proposamena, ingurumeneko eragin adierazgarriak prebenitzeko, murrizteko eta indargabe-

ámbitos se califican con un uso global de «residencial con densidad intensiva». Se prevé que los ámbitos ordenados alberguen unas 247 viviendas nuevas y varios equipamientos públicos. La ordenación adoptada contempla, así mismo, desclasificar unos 5.000 m$^2$ del suelo urbano, que pasarán a formar parte del suelo no urbanizable.

Los criterios y objetivos de la Modificación son los siguientes:

a. Dar cumplimiento al mandato judicial mediante la delimitación de tres ámbitos urbanísticos: suelo urbano (AU12 Osio), suelo urbanizable Sector 2 Osio y el resto no necesario, como suelo no urbanizable.

b. Posibilitar una ordenación que resuelva la entrada y salida de Osio a través de una rotonda con la CN 634.

c. Creación de un paso elevado de conexión entre la rotonda citada con el Paseo de Ribera del río.

d. Ascensor de conexión con Agirretxe, Escuelas y Polideportivo.

e. Zonas de espacios Libres al aire libre y a cubierto en el interior de la ordenación.

f. Espacios para dotaciones públicas en Maxpe.

g. Viabilizar en la gestión urbanística, desde un punto de vista técnico, jurídico, medioambiental y económico.

h. Incorporación de los aspectos medioambientales derivados del Informe de Sostenibilidad Ambiental.

El conjunto de documentos y planteamientos de la Modificación han considerado los aspectos y limitaciones medioambientales que presenta el emplazamiento objeto de ordenación, así como las implicaciones sobre el medio ambiente de las actuaciones urbanísticas planteadas en la misma. Así mismo, la ordenación adoptada ha tenido en cuenta la mayor parte de los criterios señalados en el documento de referencia respecto los criterios de ordenación, así como los espacios y elementos de especial interés que se encuentran dentro del ámbito de aplicación de la Modificación.

De este modo, la ordenación adoptada incluye actuaciones, como la restauración de parte de la regata Osio, la desclasificación de suelo urbano o la habilitación de espacios libres para uso público, que generarán una mejora desde el punto de vista de ambiental y de la calidad urbana.

Por otra parte, la ordenación prevista supone la urbanización y ocupación de suelo, la reducción de superficie de hábitats naturales de interés comunitario y puede provocar impactos paisajísticos considerables debido a las características orográficas del ámbito ordenado, que presenta serias limitaciones para su transformación urbanística. La importancia final de los impactos dependerá, en gran medida, del modo en que la ordenación pormenorizada –plan especial de ordenación urbana y plan parcial– y los proyectos de urbanización adopten y desarrollen las medidas protectoras, correctoras y compensatorias propuestas en el Informe de Sostenibilidad Ambiental (ISA), por lo que es importante garantizar su adecuada incorporación a los planes y proyectos de desarrollo.

A este respecto, hay que señalar que las fichas urbanísticas del A.U. Osio y el Sector 2 Osio, donde se establecen las normas urbanísticas particulares de cada uno de estos ámbitos, recogen entre los requisitos para su gestión urbanística y la formulación de la ordenación pormenorizada, varios aspectos ambientales relevantes, como la necesidad de realizar un estudio acústico –que confirme y/o complete el realizado en el ISA–, un estudio arqueológico, y un estudio paisajístico, así como la exigencia de presentar el proyecto hidráulico y ambiental para autorización administrativa de la administración hidráulica. Sin embargo, las fichas urbanísticas no hacen mención a la necesidad de que los planes y proyectos de desarrollo deben incorporar preceptivamente las medias señaladas en el apartado VI del ISA –propuesta de medidas de integración ambiental para prevenir, reducir y contrarres-

tzekoa–, nahiz VI. apartatu horretan berariaz adierazten den ingurumen integraziorako neurriak Aldaketaren hirigintzako dokumentazioan jasoko direla.

*3. Jasangarritasunari buruzko txostenaren eta egindako ebaluazioaren balorazioa.*

Ingurumen Jasangarritasunaren Txostena (IJT) Haizea Ikerketa aholkularitzak idatzi du 2016ko ekainean.

IJTk jaso egiten ditu 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, II. eranskinean eskatzen dituen edukiak, hala nola:

I. Aldaketaren edukiaren eta helburu nagusien laburpena, bai eta beste plan eta programa lotu batzuekiko erlazioak ere.

II. Nazioartean, Europar Batasunean, estatuan, erkidegoan, lurralde historikoan eta tokian finkatutako ingurumen helburuak.

III. Era esanguratsuan eragina jaso dezaketen eremuaren ingurumen ezaugarriak eta dauden ingurumen arazo nabarmenak.

IV. Aztertutako aukeren laburpena eta hartutako irtenbidearen alde egiteko arrazoi nagusien justifikazioa.

V. Aldaketaren xedapen eta jarduera desberdinek ingurumenean dituzten eragin esanguratsuen identifikazio eta balorazioa.

VI. Ingurumenean ondorio esanguratsu negatiboak prebenitu, murriztu edo, beharrezkoa den neurrian, indargabetzeko ingurumen integrazioko neurrien proposamena.

VII. Aldaketaren ondorioen zaintzarako programa.

VIII. Aukeratutako alternatibaren bideragarritasun ekonomikoari eta aldaketaren eragin negatiboak prebenitu, murriztu edo arintzeko neurriei buruzko txostena.

I., II. eta III. apartatuak erreferentziako dokumentuan planteatutako jarraibide eta edukiekin bat idatzi dira. III. apartatua irakurririk, ondorioztatzen da ezen eremu antolatuko ingurumen arazo edo muga garrantzitsuenak honakoak direla:

— Zarata mailak, puntu batzuetan gainditu egiten dituzte eta kalitate akustikorako helburuak.

— Hirigintzako jarduketak planteatzen diren haranaren estutasuna, % 30etik gorako maldak baitauzka; izan ere, horrek baldintzatu egiten ditu eraikuntza aukerak, eta lur mugimendu eta lur erauzketa handiak eskatzen ditu, paisaia aldetiko integrazioa zailduz horrenbestez.

— Azterketa eremuaren parte handi bateko uholde arriskua. Hiru aukeretako edozeinetan, bai eskuineko ertzean bai ezkerrekoan proposatzen diren eraikinak zein bidearen trazadura eta aurreikusitako biribilgunea uholde arriskuko zonan daude.

— Badago lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan sartutako partzela bat.

— Akuiferoak kutsatzeko arrisku handia.

Era berean, babestu behar diren edo eragin kaltegarririk jasatea saihestu behar den ingurumen aldetiko elementu baliotsuen artean honakoak dauzkagu:

— Artadiak eta basoak. Hirigintzako eraldaketa aplikatzeko area artadi gisa (Batasunaren intereseko 9340 habitata, Quercus ilex eta Quercus rotundifolia basoak) kartografiatutako zona baten gainean dago.

— Osio erreka, jabari publiko hidraulikoa eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa.

tar los efectos significativos en el medio ambiente–, a pesar de que en dicho apartado VI se señala explícitamente que las medidas de integración ambiental se recogerán en la documentación urbanística de la Modificación.

*3. Valoración del informe de sostenibilidad y de la evaluación realizada.*

El Informe de sostenibilidad ambiental (ISA) ha sido redactado por la consultoría Haizea Ikerketa en junio de 2016.

El ISA presenta los contenidos exigidos por anexo II del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas e incluye los siguientes apartados:

I. Resumen del contenido, objetivos principales de la Modificación y relaciones con otros planes y programas conexos.

II. Objetivos de protección ambiental fijados en los ámbitos internacional, comunitario, estatal, autonómico, foral y local.

III. Características ambientales de la zona que pueden verse afectadas de manera significativa y problemas ambientales existentes relevantes.

IV. Resumen de las alternativas contempladas y justificación de la solución adoptada.

V. Identificación y valoración de los efectos significativos en el medio ambiente de las diferentes determinaciones y actuaciones de la Modificación.

VI. Propuesta de medidas de integración ambiental previstas para prevenir, reducir y, en la medida de lo necesario, contrarrestar cualquier efecto significativo negativo en el medio ambiente.

VII. Programa de supervisión de los efectos de la Modificación.

VIII. Informe sobre la viabilidad económica de la alternativa elegida y de las medidas dirigidas a prevenir, reducir o paliar los efectos negativos de la Modificación.

Los apartados I, II y III se han redactado conforme a las directrices y con los contenidos planteados en el documento de referencia. De la lectura del apartado III, se desprende que los principales problemas o limitaciones ambientales que presenta el ámbito ordenado son:

— Niveles de ruido que superan los objetivos de calidad acústica en algunos puntos.

— Carácter encajonado del valle donde se plantean las actuaciones urbanísticas, con pendientes elevadas, superiores a 30 %, lo que condiciona las posibilidades de edificación e implica movimientos de tierra y desmontes significativos lo que dificulta su integración paisajística.

— Inundabilidad de gran parte del ámbito de estudio. En cualquiera de las tres alternativas, tanto las edificaciones propuestas en la margen derecha como en la izquierda, así como el trazado del vial y la rotonda prevista se encuentran en zona inundable.

— Presencia de una parcela incluida en el inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo.

— Alta vulnerabilidad a la contaminación de los acuíferos.

Así mismo, como elementos ambientalmente valiosos que deben ser protegidos o evitar impactos negativos sobre los mismos, encontramos:

— Encinares y bosques. El área sujeta a transformación urbanística se solapa con una zona cartografiada como encinar, hábitat de interés comunitario 9340 (Bosques de Quercus ilex y Quercus rotundifolia).

— Regata Osio, dominio público hidráulico y dominio público marítimo terrestre.

EK\CV GAO-I-2019-02183

— Batasunaren intereseko 6210 habitata, lehentasunezko habitata izan litekeena. Aldaketaren eraginpeko eremuetan, Batasunaren intereseko 6210* habitata ageri da (Larre mesofiloak, Brachypodium pinnatum eta orkidea ugarirekin).

— Jarduketa eremuan ondare historiko kulturaleko ondasunak daude. Maxpeko lonja eta Sasiola dorrea.

Antolamenduaren xede diren eremuak 4 zona homogeneo motatan sailkatu dira: zona urbanizatu edo antropizatuak, basoa, sega belardiak eta ibai sistema.

IV. apartatuan, Aukeratutako aukeren laburpena eta hartutako irtenbidearen alde egiteko arrazoi nagusien justifikazioa titulukoan, hiru antolamendu aukera desberdin baloratu dira, hasierako dokumentuan kontuan hartu baitziren jada. Hiru aukera horiek ingurumen aldetiko aldagai garrantzitsuenen arabera alderatzen ditu dokumentuak, eta ondorioztatzen du ezen hiru aukera horietako edozeinek, gauzatuz gero, antzeko inpaktu globala eragingo lukeela; hala eta guztiz, Aldaketan jorratzen den aukera, 2. alternatiba deitua (hirigintzako dokumentuetan 3. alternatiba da), aldekoena izango litzateke, inpaktu txikiagoa duelako lurzoruaren okupazioari eta orografiari dagokienez, eta erreka naturalizatzeko aukera ere ematen duelako 20-25 metro luze inguruko tartean.

Inpaktuak identifikatzeari eta baloratzeari dagokionez, IJTk 17 inpaktu nagusi identifikatzen ditu; horietatik 10 bateragarri jotzen ditu, 6 inpaktu moderatu –Batasunaren intereseko 6210 habitataren gaineko eragina, orografia eta malden gaineko eragina obra fasean, orografia eta malden gaineko eragina ustiapen fasean, uholde arriskua bai obra fasean bai ustiapen fasean, eta kalitate akustikoa-zaratarekiko esposizioa–, eta larritzat jotzen du beste bat –Batasunaren intereseko 9340 habitataren gaineko eragina–. Inpaktuen identifikazioan, erreferentziako dokumentuan aipatutako elementuak hartu dira kontuan, nahiz horien balorazioan datu kuantitatiborik eza ikusten den, batez ere ukituko diren lurzoru moten eta habitaten azalerei dagokienez. Era berean, identifikatu diren inpaktuetako batzuek ebaluazio zehatzagoa behar dute, esaterako bizitegi zonetarako kalitate akustikoko helburuak betetzen diren argitzearren edo kutsatuta dagokeen partzela inbentariatuaren kasuan.

IJTk babes, zuzentze eta konpentsazio neurri sorta oso bat dauka eta, goitik behera aplikatuz gero, Aldaketako jarduketek ingurumenean izan dezaketen eraginen murrizte adierazgarria ekar dezakete. Alabaina, neurri horietako asko irizpide edo jarraibide gisa formulatzen dira, eta plangintza xehatuak zehaztu edo garatu egin behar ditu horiek.

Planteatzen den ikuskatze programak, behar besteko kontrol eta jarraipen adierazleak badauzka ere, ez du aurrekonturik, eta definizio eta zehaztapen handiagoak behar ditu programa egikaritzeko eta finantzatzeko ardurei dagokienez.

Azkenik, IJTk ez du aukeren eta aldaketatik ondoriozta daitezkeen ondorio negatiboak prebenitzera, murriztera edo arintzera zuzendutako neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostenik, 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, II. eranskinean eskatzen badu ere, eta Aldaketaren «Ekonomia eta Finantza Bideragarritasuna» izeneko 5. txostenera jotzen du. Alabaina, azterketa horrek ez du inolako aipamenik egiten ingurumeneko inpaktuak prebenitzera, murriztera edo arintzera zuzendutako neurrien gainean.

*4. Erreferentziako dokumentua egin eta kontsulten emaitza jaso ondoren egindako aldaketen balorazioa.*

Ez da aldaketa garrantzitsurik izan erreferentziako dokumentua emateko oinarria izan zen hasierako onarpenaren doku-

— Hábitat de interés comunitario 6210, que podría ser un hábitat prioritario. En las zonas afectadas por la modificación aparece el hábitat de interés comunitario 6210* (Pastos mesófilos con Brachypodium pinnatum con abundantes orquídeas).

— En el ámbito de actuación existen bienes del patrimonio histórico cultural. Lonja de Maxpe y Torre de Sasiola.

Los ámbitos objetos de ordenación se han clasificado en 4 tipos de zonas homogéneas: zonas urbanizadas o antropizadas, forestal, prados de siega y sistema fluvial.

En el apartado IV Resumen de las alternativas contempladas y justificación de la solución adoptada, se han valorado tres alternativas diferentes de ordenación, que ya se habían considerado en el documento de inicio. Compara las tres opciones en función de las variables ambientales más significativas y considera que la ejecución de cualquiera de las tres alternativas supondría un impacto global de similar magnitud, si bien concluye que la alternativa adoptada en la Modificación, la denominada alternativa 2 (alternativa 3 en los documentos urbanísticos), es la más favorable, al presentar un menor impacto en relación a ocupación de suelo, sobre la orografía y permitir la naturalización de la regata en torno a 20-25 metros.

En cuanto a la identificación y valoración de impactos, el ISA identifica 17 impactos principales, 10 de los cuales son valorados como compatibles, 6 impactos como moderados –Afección sobre el hábitat de interés comunitario 6210, afección sobre la orografía y pendientes en la fase de obra, afección sobre la orografía y pendientes en la fase de explotación, el riesgo de inundación tanto en fase de obras como de explotación y la calidad acústica-exposición al ruido– y uno –afección sobre el hábitat de interés comunitario 9340– como severo. En la identificación de impactos se han considerado los elementos señalados en el documento de referencia, si bien, en valoración de los mismos, se echan en falta datos cuantitativos, en especial en relación a la superficie afectada de los distintos tipos de suelo y los hábitats afectados. Así mismo, algunos de los impactos identificados requieren de una evaluación más detallada, como es el caso de un estudio acústico que determine el cumplimiento de los objetivos de calidad acústica para zonas residenciales o la parcela inventariada como potencialmente contaminada.

El ISA cuenta con una completa batería de medidas protectoras, correctoras y compensatorias que, de aplicarse plenamente, pueden suponer una reducción significativa de los impactos medioambientales de las actuaciones de la Modificación. Sin embargo, muchas de estas medidas se formulan en forma de criterios o directrices que requieren ser concretadas o desarrolladas por el planeamiento pormenorizado.

El programa de supervisión planteado, si bien cuenta con controles e indicadores de seguimiento suficientes, carece de presupuesto y requiere de una mayor definición y concreción en cuanto a las responsabilidades de ejecución y financiación del programa.

Por último, el ISA no contiene un informe sobre la viabilidad económica de las alternativas y de las medidas dirigidas a prevenir, reducir o paliar los efectos negativos que se pudieran derivar de la modificación, que exige el anexo II del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas y remite al documento 5 «Estudio de Viabilidad Económica Financiera» de la Modificación. Sin embargo, dicho estudio no hace mención alguna a las medidas dirigidas a prevenir, reducir o paliar los impactos medioambientales.

*4. Valoración de los cambios realizados tras la emisión del documento de referencia así como de la integración del resultado de las consultas.*

No se han producido cambios relevantes en la ordenación adoptada desde el documento de aprobación inicial en base al

EK\CV GAO-I-2019-02183

mentutik jorratutako antolamenduan. Planoen azterketatik ondorioztatzen denez, Osio errekaren eskuin aldeko bizitegi eraikinen forma eta kokapena pixka bat aldatzera jo da, 2. sektorean. Horrek aukera eman du bidea pixka bat lekualdatzeko eta errekari espazioa emateko, ibilgu bihurgunetsuago eta naturaletik hurbilago batez. Doikuntza horrek hobekuntza ekarriko du ingurumenaren ikuspegitik, kontsulta fasean Uraren Euskal Agentziaren (URA) txostenak jasotako irizpidearen ildotik joz, horren arabera mamizko aldaketa edo alterazio orotatik libre utzi behar baitzen ibilguko erabilera publikoko zortasun eremua.

Jendaurreko informazioaren eta administrazio ukituei egin kontsultaren izapidea zela eta URAk, Uraren Euskal Agentziak, txostena eman zuen, adieraziz bertan ezen ibilguaren estaldura kentzeko eta ibilgu berri batez ordezkatzeko proposamena ingurumenaren aldetiko hobekuntza garrantzitsua dela egungo egoerarekiko, eta eskatzen zuen bideratze aukera gogorrak saihesten ahalegintzea eta ibilguak lehengoratzea eta naturalizatzea sustatzea. Era berean, eraikin berriek ibilguarekiko gorde beharreko tarterako baldintzak adierazten zituen, azterketa hidraulikoa egin beharra ezartzen zuen, hain zuzen ere eremuetarako proposamena aztertzeko –Udalak dagoeneko egin du azterketa hori, eta dokumentazioan jaso du, behin-behineko onarpenera begira–, eta gogorarazten zuen jabari publiko hidraulikoan zein horren babes eremuan egiten diren jarduketa guztiek, eta itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko zortasun eremuan eginek, Uraren Euskal Agentziak aurrez eman baimena beharko dutela.

Izapide berean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak Aldaketaren aldeko txostena eman zuen, nahiz uste zuen kultur elementuen babesari buruzko aipamen lotesleak ere jaso behar direla. Aipamen horiek 12 HA Osio arearen hirigintzako fitxan jaso dira.

